

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA



# ETXETIK PLAZABA

ODOLAREN

SOLAS

GUTXITUAK

**SARIA:**

**BIDAZI**

ELKARTEKO BERTAKO  
PRODUKTU EKOLO-  
GIKOZ OSATUTAKO  
SASKIA

2019ko ABENDUA

165. ALEA

# IRAKURLAN

## SAMI HERRIAREN HIZKUNTZA

Ale honetako pertsonaia Lesakako barnetegian ezagutzeko aukera izan genuen udan, euskara-ikastaro bat egitera etorri baitzen gurera. **Linda Wiechetek** da bera, Norvegiako iparraldean bizi den alemaniarra. Samierarekin lan egiten du Lindak; horregatik, hizkuntza gutxitu horri buruz galdetu nahi izan diogu elkarrizketa honetan.



### 1. Non solastatzen da samieraz? Zein da bere egoera?

Norwegian, Suedian, Finlandian eta Errusian hitz egiten da. Bederatzi sami-hizkuntza daude, eta denak arriskuan daude, hizkuntza gutxituak direlako eta estatuetan beste hizkuntza indartsuagoak daudelako. Gainera, askotan, hizkuntza ongi menperatzen duten hiztunak falta dira. Elebidunek beti norvegieraz/suedieraz/finlandieraz hitz egiteko aukera daukate. Orduan, samiera ez dakiten pertsonak dauden testuinguruan, zaila izan daiteke hitz egiteko aukera izatea.

Baina, hala ere, hizkuntza indartzeko ahalegin handia dago, eta hiztun oso kontzientek daude, eta nahiz eta samiera txikitzen ez jakin, seme-alabekin hitz egiten saiatzen dira, eta haurtzaindegi samira bidaltzen dituzte.

### 2. Zenbat dialekto daude? Badago hizkuntza bateraturik, euskara batuaren kasuan bezala?

Euskararen inguruan ez bezala, samieraren inguruan "hizkuntzei" buruz hitz egiten da. Bederatzi hizkuntza daude, eta geografikoki hurbil daudenen artean ondo ulertzen dute elkar, baina urruti daudenen artean ez. Gainera, adibidez, Ipar Samik hiru dialekto dauzka: ekialdekoa (Kárášjohka), mendebaldekoa (Guovdageaidnu), eta itsasaldekoa. Euskara idazteko estandar bakarra dago, baina sami-hizkuntzek (ia denek) idazteko estandar bana daukate.

### 3. Badago eskoletan samieraz ikasteko aukerarik? Eta helduentzako eskolarik badago?

Norvegiako samien distrituetan (Karasjok, Kautokeino, Nesseby, Porsanger, Kåfjord, Tysfjord, Lavangen, Snåsa, Røyrvik), umeei samieraz ikasteko eskubidea daukate. Bestela, Norvegiako gainerako zonaldeetan samiera gai moduan ikasteko eskubidea dute, bertako hizkuntza ofiziala delako. Suedian, aldiz, samierazko eskolak Karesuandon, Kirunan, Gällivaren, Jokkmokkean eta Tärnabyean daude, eta, horietan, samiera bakarrik ikasi ahal da.

Finlandian beste egoera bat dago; helduentzako eskolak badaude, baina ez hainbeste. Unibertsitateko ikastaroetan hizkuntza ikasi ahal da, eta, gainera, samiera ikasteko zentro batzuk daude, baina urruti bizi den jendearentzat zaila da astean behin edo gehiagotan parte hartzea. Online ikastaroak (e-skuvla) eta ikastaro trinkoak ere badaude.



#### **4. Zer babes politiko du samierak?**

Norvegiako konstituzioak esaten du jendeak eta estatuak samiera babesteko erantzukizun berezia daukatela. LNEren herri indigenen inguruko 169. hitzarmena ere badago. Gainera, Norvegian, Suedian eta Finlandian sami-parlamentuak daude, baina Errusian ez.

#### **5. Zu alemaniarra zara, baina, egun, Norvegian bizi zara. Nolatan hasi zinen sami-kultura eta hizkuntza ikasten?**

19 urterekin Ipar Norvegiako eskolan (folkehøyskole) egon nintzen, eta irakasle bat hego samia zen. Hark, sutondoan eserita, bere kulturari buruz hitz egin zigun. Gero, Alemanian, hizkuntza-master bat ikasten hasi nintzen, eta diru-laguntza lortu nuen, urtebetez Tromsø ikasteko. Ipar samiera-ikastaro batean parte hartu nuen, eta hori izan zen bertan murgiltzeko abiapuntua.

#### **6. Samierarekin lan egiten duzu. Zertan datza zure lana?**

Tromsøko unibertsitatean (UiT Norgga árktaš universitehta), Divvun izeneko taldean hizkuntza-teknologiekin lan egiten dut (<http://divvun.no/>). Horrek esan nahi du samiera idatzia erabiltzeko eta ikasteko tresnak zabaltzen ditugula. Adibidez, kontrol ortografiko eta gramatika, formak ulertzen dituen hiztegia edota itzultzaile automatikoak egiten ditugu. Orain bertan, Ipar-samierazko akats gramatikalak aurkitzen dituen zuzentzailearekin lan egiten ari naiz.

#### **7. Euskara ere ikasten ari zara. Antzekotasunik ba al dute bi hizkuntzek beren artean?**

Nahiz eta euskara eta samiera oso ezberdinak izan, antzekotasun gramatikal batzuk nabaritzen ditut. Biak morfologikoki konplexuak dira; hots, hitzek esanahi asko dauzkate. Bietan, hitz bakarrarekin esan dezakezuna adierazteko, bertze hizkuntza batzuetan hitz asko behar izaten dira. Horrez gain, euskarak bezala, samierak ez dauka gaztelaniazko el/ella bereizketarik, eta postposizioak daude preposizioen ordean.

#### **8. Nola ikusten duzu samiera etorkizunean?**

Ez dakit nola egongo den etorkizuna, baina kontzientzia-linguistikoa eta hizkuntzaren egoera hobetzeko ahalegin handia ikusten dut. Nire ustez, munduaren eleaniztasuna aberastasuna da, eta momentu honetan, hizkuntza gutxik daukate indar handiena. Gure berezko hizkuntzak erabili behar ditugu, gure ezaguera eta komunikazioa babesteko.

#### **9. Bukatzeko eta agurtzeko, hitz batzuk erranen al dizkiguzu samieraz? Eta itzulpena, noski!**

*Giella eallá go olbmot hállet dan. Giitu!* Hizkuntza bizi da, jendeak hitz egiten badu. Eskerrik asko!





# LAN eta LAN

## MUNDUKO HIZKUNTZAK

Euskaltzaindiak bere 38. arauan, munduko hizkuntza ofizialak euskaraz nola deitzen diren bildu zuen. Horretan oinarrituta, horietariko batzuk ikasiko ditugu ariketa honetan.

Samieraren kasuan bezala, mintzaira aunitzek **-era** bukaera hartzen dute, errate baterako, honako hauek: **armeniera**, **txetxenera**, **korsikera**, **txekiera** edota **estoniera**. Hortaz, hurrengo taulan, atzizki horixe bera hartzen duten hainbat hizkuntza aurkituko dituzu. Guk frantses eta gaztelaniaz idatzi ditugu; zure lana izanen da euskarazko izena ematea.

### Euskaraz

Moldav**iera**

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....
- 5 .....
- 6 .....
- 7 .....
- 8 .....
- 9 .....
- 10 .....
- 11 .....
- 12 .....
- 13 .....
- 14 .....

### Frantsesez

- Moldave
- Arabe
- Breton
- Bulgare
- Chinois
- Danois
- Finnois
- Italien
- Japonais
- Kurde
- Occitan
- Persan
- Polonais
- Russe
- Turc

### Gaztelaniaz

- Moldavo
- Árabe
- Bretón
- Búlgaro
- Chino
- Danés
- Finlandés
- Italiano
- Japonés
- Curdo
- Occitano
- Persa
- Polaco
- Ruso
- Turco

# HIZKUNTZA GUTXITUAK

# BITXILOREAK

Lindari egindako elkarrizketan, samieraren egoera eta bertze kontu batzuk ikasi ditugu. Samiera hizkuntza gutxitua da, euskara bezala. Hortaz, testu honetan, hizkuntza horiei buruzko informazioa eta Europako gutxiengoaren hizkuntzei buruzko zertzeladak dituzue: hitz batzuk azpimarratu ditugu, behean dauden sinonimoekin parekatzeko.

**ERNE, SARIBAKO!**

- a) solastunek    b) jartzen    c) hizkuntzen    d) neurri  
e) jasaten, nozitzen    f) zabalpenari    g) batez ere    h) trabak    i) guztia  
j) lotzen    k) itun    l) bultzatua    m) eraso    n) izenekoa

**Zer da hizkuntza gutxitua?** Historian zehar edo gaur egun, bazterketa, jazarpena (1) edo debekua pairatzen (2) duen hizkuntza oro (3) da. Prozesu hori botere publikoek kontzienteki sortua eta sustatua (4) izan daiteke, baina era naturalago batean ere gerta daiteke; esaterako, migrazio-fenomenoen ondorioz. Dena den, **ez da gauza bera hizkuntza gutxitua eta gutxiengoko hizkuntza**. Zenbait kasutan, gutxiengoko hizkuntza ez da kontzienteki gutxiagotua izan (Europar anitz daude, txekiera adibidez); bertzalde, estatu jakin baten barranean, gutxiengoko hizkuntza izan daiteke, baina bere jatorrizko eremuan, nagusia (katalana Estatu Espainiarrean edo frantsesa Kanadan, adibidez). Beste kasu batzuetan, mundu mailan gutxiago ez den hizkuntza, gutxiagotua izan daiteke eremu jakin batean (alemana Alsazian, adibidez).

Historian barrena, nahita gutxituak izan diren hizkuntzak estaturik gabeko nazioetakoak izan dira batik bat (5), halako hizkuntzek beste hizkuntza batzuen aurrean ofizialtasun estatusa izan ez dutelako. Gutxitze-prozesu horren baitan, bertzelako arrazoi batzuk ere badira: erabilerari dagokionez, publikoa izateko lege bidezko debekua, eta hezkuntzan, hizkuntza horiei jartzen zaizkien oztopoak (6). Ondorioz, hizkuntza horiek honako ezaugarriak dituzte: alde batetik, lurralde bateko berezko hizkuntza alor batzuetan erabiltzeko aukerarik ez izatea, eta bertze aldetik, komunitate horren elebiduna bihurtze unilaterala: gutxitutako hiztunek (7) hizkuntza menperatzailea ikasten dute.

**Munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzetatik, %50 desagertuko dira** mende honetan. Hizkuntza aniztasunaren galtzea europar kolonialismoaren hedapenari (8) zor zaio hein (9) handi batean. Ingelesak, frantsesak, gaztelaniak eta portugesak jatorrizko hizkuntzak ordezkatu dituzte, eta ordezkatzan jarraitzen dute Amerika, Afrika eta Ozeanian bereziki.

Europar Batasunean, hainbat estatuk nazioarteko hitzarmen (10) bat sinatu dute, **Europako Eskualde eta Gutxiagotutako Hizkuntzen Gutuna** deiturikoa (11), non gutxiengoko mintzairen (12) aldeko neurriak ezartzen (13) diren. Estatuak erabakitzen dute, ordea, horri atxikitzen (14) zaizkion eta zein mailatan babestu nahi dituzten.

## Europako hizkuntza gutxituak sailkatzerakoan hiru multzo egin ditzakegu:

1. Mendebaldekoak: 30 bat badira. Estatu Espainiarrari dagokionez, honako hauek: aragoiera, aranera, asturiera, galiziera, katalana, euskara. Bertze batzuk aipatzearen: erromantxera, bretainera, gaelera, galesera, ijitoera, korsikera, maltera, okzitaniera, liviera, friulera, samiera...

2. Erdialdeko eta Ekialdekoak: 30 bat zerrenda daitezke: arumanera, mokshera, nenetsera, ijitoera, rusynera, gagauzera, txubaxera, tatarera, samiera...


3. Kaukasokoak: 50 bat hizkuntza inguru daude. Estatuko hizkuntza ofizialak errusiera, georgiera, armeniera eta azerbaijanera dira. Adibidez: avarera, dargvera, lakera, kalmykera, mingrelia, talishera, txetxeniera, kurduera...



# MAPA-JOLAS

## EUROPAKO HIZKUNTZAK

Europar, 110 bat hizkuntza gutxitu daude, hiru multzotan sailkatuz: mendebaldekoak, erdialdeko eta ekialdekoak eta Kaukasoko hizkuntzak. Mapa honetan, hamar hizkuntza kokatu ditugu (zenbaki bana paratu dugu), eta zure lana behean agertzen diren hizkuntzekin zenbaki bakoitzari dagokionarekin lotzea izanen da.



Zenbakia	Hizkuntza
.....	a) Tartarera (6,6 milioi hiztun)
.....	b) Kareliera (80.000 hiztun)
.....	c) Britainiera (250.000 hiztun)
.....	d) Korsikera (200.000 hiztun)
.....	e) Okzitania (580.000 hiztun)

Zenbakia	Hizkuntza
.....	f) Gaelera (1,1 milioi hiztun)
.....	g) Aranera (3.800 hiztun)
.....	h) Samiera (55.000 hiztun)
.....	i) Txuvaxera (1,8 milioi hiztun)
.....	j) Erromantxera (35.000 hiztun)



# ERANTZUNAK



## LAN eta LAN (4. or.):

1- arabiera; 2- bretoiera; 3- bulgariera; 4 -txinera; 5- daniera; 6- finlandiera/suomiera; 7- italiara; 8- japoniera; 9- kurduera; 10- okzitania; 11- persiera; 12- poloniera; 13- errusiera; 14- turkiera

## MAPA-JOLAS (6. or.):

a- 7; b- 9; c- 1; d- 2; e- 10; f- 5; g- 4; h- 3; i- 8; j- 6

## 164. aleko sariketa erantzunak – LAN eta LAN (4. or.):

1. Lagunduko diguzu...; 2. Abisatu naute lagunduko digutela...; 3. ... ez du Ane sinetsi, baina ni sinetsi nau.; 4. Lehengusuari deitzen badiozu...; 5. Lagunduko didazu, faborez?...; 6. Amaiak ez digu abisatu...; 7. Poliziak deitu ditugu, baina ez gaituzte lagundu.; 8. Deitzen banauzu, lagunduko dizut...

## ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabaz-learen izena agertuko dira.

Saria: **BIDAZI**  
elkarteko bertako produktu ekologikoz osatutako saskia

164. aleko irabazlea:  
**Miren Irurzun Ayerza**  
Lesakakoa

## ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

Eska ezazu,  
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko  
IKA euskaltegietan



OHARRA: erantzunak abenduaren 18a baino lehen bidal itzazu.



## SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. OR.):

EP 165 (2019/12)

a - _____	f - _____	j - _____
b - _____	g - _____	k - _____
c - _____	h - _____	l - _____
d - _____	i - _____	m - _____
e - _____		n - _____



# EUSKARA berri on!!

## ESKER ONEZ

### beteriko SU-PINTTARRAK;

Urdazubiko Nikolaurenea  
erretegiari, Lesakako  
Lindurrenborda sagardo-  
tegiari, Beko mintegiari,  
Bidazi Elkarteari, Baztango  
Udalari eta Bortziriak eta  
Malerrekako Euskara  
Mankomuni-tateei...

### ... eta ESPERANTZA eta ESKER ON SUTARRI GORIAK

euskaltegion eta euskalgin-  
tzaren egoera sendotzeko,  
bultzatzeko eta babesteko  
ahaleginetan dabilen  
Nafarroako Gobernuari...  
ea asmo onak gauzatzen  
ahal diren.

### ... eta BEROTASUN GOXOA EUSKARA

erabiltzeko, hobetzeko, ikasteko,  
babesteko eta **EUSKARAZ** osasuntsu  
bizitzeko ahaleginean ari zareten Etxetik  
Plazarazale eta euskaltzale guztiei!!



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta  
Malerrekako IKA  
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak  
eta maketazioa:

**Joseba Larratxe**

Laguntzaileak:

**Nafarroako  
Mendialdeko  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEAK**



## ZOKKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

## HORRA GURE HELBIDEAK

**Bortziriako IKA Euskaltegia**  
**Malerrekako IKA Euskaltegia.**  
Arretxea 22, 31770 Lesaka. Rosa seminario 6, behea, 31740 Doneztebe.  
[bortziriak@ikaeuskaltegiak.eu](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eu)  
[malerreka@ikaeuskaltegiak.eu](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eu)

